

# Sarna edo hazteria

Sarcoptes scabiei izeneko akaroak sorrarazitako larruazal-gaixotasuna.



## SINTOMAK




### 1. AZKURA HANDIA gauetan biziagoa

(1. infekzioa: kontaktua izan denetik 2-6 astera. Berrinfekzioa: kontaktua izan denetik 1-4 egunera)



### 2. SIMETRIA ESPLIKAEZINEKO ERUPZIOAK LARRUAZALEAN

(helduetan: hatzen artean, eskuetan, eskumuturretan, besapeetan, bular-puntetan, ipurmasailetan eta genitalatan)



### 3. ILDOAK ETA BESTELAKO LESIOAK GORPUTZEKO HAINBAT ATALETAN

## KUTSAPENA




### PERTSONATIK PERTSONARA

(larruazalarekin zuzeneko eta luzaroko kontaktua izan ondoren)



### EHUNEN BIDEZKOA (arropa, izarak, etab.)



**ALTZARIEN,  
GAINAZALEN... BIDEZKOA**  
(akaroa 48-72 ordura arte bizi daiteke giza gorputzetik kanpo)



**ANIMALIETATIK  
PERTSONETARA**  
(posible da, baina ez oso gertagarria)

## PREBENTZIO OROKORREKO NEURRIAK

- Familiako medikuarekin kontsultatu, eta haren jarraibideak bete.
- Hala infektatuak nola haren zuzeneko kontaktuek tratamendua jasotzea.
- Janzteko eta oheko arropak 60º-ra garbitu.
- Garbitu ezin diren ehunak plastikozko poltsa hermetikoetan gorde, gutxienez 4 egunez.
- Higiene-neurriak zorrotzu.
- Oro har, tratamendua lehen aldiz aplikatu denetik ordu batzuk igaro ondoren, jada ez da kutsakorra, eta bizimodu normala egin daiteke.